

**Bizkaiko Foru Aldundiak** hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdia egin du. Deialdia martxoaren 25eko BAO n argitaratu da (martxoaren 3ko 613/2021 Foru Agindua).

**Nork har dezake parte deialdi honetan?** Deialdi honetara aurkeztu ahalko dira bai funtzionarioak, karrerakoak nahiz bitartekoak, bai lanhitzarmen finkodunak. Aldi baterako kontratua duten langileak ere aurkeztu ahal dira, baldin eta eskabidea egiteko epearen barruan kontratua indarrean badute.

#### **Nola egin eskabidea?**

Eskabidea egiteko, jo helbide honetara:

<http://app.aldundia.bfa/apps/danok/KJ00/euskara/>.

Eskabide-inprimakia ondo bete duzun jakin nahi baduzu, sakatu "**Eskabideen kontsulta**" botoia.

Azterketa-probei buruzko informazioa laneko posta elektronikora igorriko da. Informazioa beste helbide elektronikoren batean jaso nahi baduzu, eskabide-orrian zehaztu ahal izango duzu.

- Baliabide informatikorik izan ezean GUFeko trebakuntza eta euskara arloan egingo da (944067657 telefonoan).

#### **Eskabidea egiteko epea**

**Epea 2021eko martxoaren 26an hasi eta apirilaren 16an (biak barne) bukatuko da**

#### **Azterketa-probak**

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko prozesuak bi azterketa ditu: idatzia eta ahozkoa. Azterketa idatzian irakurmena eta idazmena neurtuko dira, eta ahozko azterketan, mintzamina eta entzumena.

Derrigorrezkoa da trebetasun guztiak gainditzea azterketa gainditzeko.

#### **Emaitzak**

Azterketa-proben emaitzak posta elektronikoz jakinaraziko dira, edo intraneteko orrian ikusi ahal izango dira.

#### **Azterketaren emaitza gordetzea**

- Irakurmena, idazmena eta entzumena gainditzen duten izangaiak salbuesita egongo dira gainditutako trebetasun horiei dagozkien ariketak egitetik hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako Bizkaiko Foru Aldundiaren hurren-hurrengo deialdian. Hortaz, zuzenean aurkeztuko dira mintzamenaren azterketara.
- Aipatu salbuespenaren barruan eta baldintza berberetan egongo dira IVAPen aurreurreko deialdian aurkeztu eta, lortutako emaitzen arabera, egoera berean aurkitzen diren Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomiadunen zerbitzupean diharduten langileak ere.
- Mintzamina, irakurmena eta entzumena gainditzen duten izangaiak salbuesita egongo dira gainditutako trebetasun horiei dagozkien ariketak egitetik hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako Bizkaiko Foru Aldundiaren hurren-hurrengo deialdian. Hortaz, zuzenean aurkeztuko dira idazmenaren azterketara.

Hala ere, izangai horiek probetarako izena eman beharko dute hurren-hurrengo deialdian eta dagokion epearen barruan.

**Ziurtagiriak non jaso** Azterketa hauen bidez hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatzen dutenek IVAPeko zuzendariaren ziurtagiria Azterneten bidez izango dute eskura (kontsultak/IVAP HE ziurtapenak), inprimagarria den euskarri digitalean. Era berean, ziurtagiri digitala eskuragarri izango da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa, «nire karpeta» atalean. Paperean ere jaso dezakete interesatuek, IVAPi idatziz berariazko eskaera eginez gero.